

B. JARDUERA EKONOMIKOEN GAINKO ZERGA ARAUTUKO DUEN ORDENANTZA FISKALA

Tarifa eta karga mota:

— Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga: Urduña udalerrian burutzen diren jarduera guztietarako koefiziente bakarra 2koa da.

Tarifa horretan, haztapen-koefizientea ezarriko da elkarren segidan, eragiketen kopuruaren arabera.

Aurreko artikuluan aipatutako haztapen-koefizientea zehazteko, honako taula hau hartuko da kontuan:

Eragiketen kopurua (eurotan)	Koefizientea
2.000.000,00tik 6.000.000,00ra	1,20
6.000.000,01etik 10.000.000,00ra	1,22
10.000.000,01etik 50.000.000,00ra	1,24
50.000.000,01etik 100.000.000,00ra	1,27
100.000.000,00 baino gehiago	1,30
Eragiketa-kopururik gabe	1,25

Idatz-zati honetan aipatutako koefizientea ezartzeko, berak garatutako jarduera ekonomiko guztiei dagokiena izango da subjektu pasiboaren eragiketen kopurua. Horretarako, gainera, foru-arauko 5. artikuluko 1. idatz-zatiko h) letran aurreikusitakoa hartuko da kontuan.